EUSKAL PILOTA EGOKITUKO TXAPELKETA

TXAPELKETA IREKIKO ARAUTEGIA:

- Urritasuna duten pertsonentzako bi kategoria ezberdin jokatuko dira:
  - Adimen urritasuna duten pertsonentzako zutikako paleta egokitua.
  - Paleta egokitua gurpildun aulkian. Gurpildun aulkian jokatu nahi duen ororentzat urritasuna izan ala ez.

- Bikoteka jokatuko da.

- Izen-ematea banaka izango da.

- Antolakuntzak osatuko ditu bikoteak eta nor noren aurka izango den ere.

- Epaile ofizialak egongo dira txapelketa osoan.

- Kategoria bakoitzeko arautegiak eranskinetan.

  - Eranskina 1: Gurpildun aulkiko gomazko paleta.
  - Eranskina 2: Zutikako paleta egokitua adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Arautegi honek egokitzapenak izan ditzake txapelketa hasitakoan, parte hartzaileen beharretara egokitzeko asmoz.

EUSKAL PILOTA EGOKITUKO ARAUTEGIA

ERANSKINA 1: GURPILDUN AULKIKO GOMAZKO PALETA EGOKITUA

Euskal pilota egokituko arautegiak, Euskadiko euskal pilota federakuntzako arautegian oinarrituak daude ondorengo moldaketekin:

I TITULUA: Pilotalekuak:

- Ezker hormako pilotalekua gurpildun aulkiko jokalarientzat irisgarria dena.

II TITULUA: Jokorako erremintak:

- Egurrezko paleta zein karbonozko paleta. Kadeteena edo haur kategoriakoa izan daiteke, baita bakoitzak bere beharretara egokitutako ere. Arina izatea aholkatzen da.
- Erraketa. Goiko gorputz adarretan urritasun maila altua edo/eta indar falta duten jokalarientzat. Froga bat egin ahal izango da jakiteko erraketa edo paletarekin jokatzea.
- Babes betaurrekoak erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

III TITULUA: Pilotak:

- Presio gutxiko eta hori koloreko gomazko "mole pele mini" pilotak.

IV TITULUA: Jokoa:

- Sakea, tanteoa eta kategoria:

URRITASUN MAILA	SAKEA	TANTEOA	KATEGORIA
Lesio altua goiko gorputz adarretan.	10,5m-tik 7m-tara (3tik 2ra); 17,5m-tan (5an) pasa.	Jokalari kopuruaren arabera erabakiko da	ABSOLUTUA KATEGORIA BAKARRA
Goiko gorputz adarretan lesio txikia edo lesio gabe.	10,5m-tik 10,5m- tara (3tik 3ra); 17,5m-tan (5an) pasa.		

- Faltak:
    - Pilota 3 bote edo gehiagorekin kolpatzen bada.
        - Bigarren botea joko eremuaren kanpoan izan daiteke.
- Gurpildun aulkiak:
    - Gurpildun aulkia kiroletakoa izatea aholkatzen da kirolariaren segurtasunagatik.

ERANSKINA 2: ZUTIKAKO PALETA ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT

Euskal pilota egokituko arautegiak, Euskadiko euskal pilota federakuntzako arautegian oinarrituak daude ondorengo moldaketekin:

II TITULUA: Jokorako erremintak:

- Egurrezko paleta. Kadete edo haurren paleta izan daiteke, baita bakoitzaren beharretara egokitua ere.

III TITULUA: Pilotak:

- Teniseko pilotak.

IV TITULUA: Jokoa:

- Sakea, tanteoa eta kategoria:

INDAR GAITASUNA	SAKEA	TANTEOA	KATEGORIA
Kolpatzeko gaitasun txikia	10,5m-tik 7m-tara (3tik 2ra).	(Jokalari kopuruaren arabera erabakiko da)	ABSOLUTUA KATEGORIA BAKARRA
Kolpatzeko gaitasun nahikoa	10,5m-tik 10,5m-tara (3tik 3ra); 24,5m (7) pasa.		